BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5118

AGINDUA, 2011ko irailaren 12koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan Azkue Fundazioaren estatutuetako 21. artikuluaren aldaketa inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko ekainaren 29an, Justizia eta Herri Administrazio Sailean, Miren Dobaran Urrutia andreak aurkeztutako idazkia jaso zen, eta bertan zera eskatzen zen: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskriba zedila fundazioaren estatutuen 21. artikuluan egindako aldaketa. Horretarako, eskrituraren kopia baimendua eransten dut, Bilboko notario Juan Ramón Manzano Malaxechevarria jaunak (protokolo-zenbakia. 921) 2011ko ekainaren 27an emana. Horrela, publiko egiten da fundazioaren patronatuak 2011ko apirilaren 14an egindako bileran hartutako erabakia, zeinen bidez aldatzen baita (bi paragrafo berri gehituta) fundazioaren estatutuetako 21. artikulua. Erabaki hori eskritura publikoak duen ziurtagirian jasota dago. Ziurtagiria Miren Dobaran Urrutia andreak eman zuen, 2011ko maiatzaren 31n, fundazioaren patronatuko idazkaria zen aldetik; oniritzia, ordea, patronatu horretako lehendakariak, Miren Josune Ariztondo Akarregi andreak, eman zuen.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, ebazpen-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako lege-xedapen hauetan hala ezarrita baitago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4.1 artikuluan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Aipatu manuak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Bilboko Azkue fundazioaren estatutuetako 21. artikuluan egindako aldaketa (bi paragrafo gehitzea) onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutu-aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu dadila agintzea. Inskripzioa agindu honen data emanda egingo da, eta 2011ko ekainaren 27an Juan Ramón Manzano Malaxechevarria Bilboko notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan ezarritakoari jarraituz (protokolo-zenbakia: 921).

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta fundazioari bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio; eta beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera hil biko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 12a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.